

Ordizian, **2009ko maiatzaren 28an**, UDALBATZA elkartu da bilkura-aretoan **OHIKO** bilera egiteko. Bertan izan dira honako hauek:

**BERTARATUAK:**

**UDALBURUA:** Jose Miguel Santamaría Ezeiza jn.

**BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:**

Alejandra Iturrioz Unzueta and	EAJ/PNV
Jon Txurruka Etxezarreta jn.	EAJ/PNV
Miren Auzmendi Urkiola and.	EAJ/PNV
Belen Maiza Urrestarazu and.	EA
Iban Asenjo Garde jn.	EA
Iñaki Dubreuil Churruca jn.	PSE-EE(PSOE)
Jose J. Lopez Fernandez jn.	PSE-EE(PSOE)
Mikel Leunda Semperena jn.	EB-Berdeak/Aralar
Maialen Galparsoro Odriozola and.	EB-Berdeak/Aralar

**BERTARATU EZ DIREN ZINEGOTZIAK:**

Iñigo Manrique Cía jn.	PP
Monica Marañon Basarte and.	PSE-EE(PSOE)

**BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA:**

Ana Urkizu Kerejeta and.

**KONTU HARTZAILEA:**

Jose Luis Aranburu Otegi jn.

**INTERPRETEA:**

Izaskun Zubitur Iñurrita and.



## BERTARATZEAK ETA BILERA UZTEAK

- Azurmendi andreak 8. puntuari utzi du bilera.
- Txurruka jaunak 9. puntuari utzi du bilera.
- Galparsoro andreak 12. puntuari utzi du bilera.

## AZTERGAIAK

### EGUNEKO AZTERGAIETAKO PUNTUAK:

1.- Udalbatzak 2009ko martxoaren 26an egindako bileraren akta onartzea.	3. or.
2.- Udalbatzak 2009ko apirilaren 29an egindako bileraren akta onartzea.	4. or.
3.- Udalbatzak 2009ko maiatzaren 6an egindako bileraren akta onartzea.	5. or.
4.- Alkatetzak onartutako kreditu gehigarrien espedienteen berri-ematea.	6. or.
5.- Francisco Franco ohorezko alkate izendatzen duen akordioa baliogabetzea.	7. or.
6.- 2008ko aurrekontuaren likidazioaren berri ematea.	8. or.
7.- San Inazio eraikina jaregitea.	10. or.
8.- Haur-eskola zerbitzua esleitzeko baldintza ekonomiko-administratiboen eta teknikoaren agiria onartzea.	11. or.
9.- Etxe etxeko laguntza-zerbitzua esleitzea.	16. or.
10.- Goierriko Herrien Ekintzako eraikineko lanen EIOZen hobaria.	18. or.
11.- HEE (Hirigintza Esku-hartzeko Eremua) 30 "OIANQUALDE" hitzarmena onartzea.	19. or.

### PREMAZKOTASUNEZ AZTERTUTAKO GAIAK:

#### GORABEHERAK

EULENeko langileek (San Jose zaharren egoitzan azpikontratatu dagoen enpresa) "Bila gabiltza" eta "Santamaria jaunak emakumeak diskriminatzen ditu" zioten pankartan zeuzkaten, eta bilera hasi aurretik haiek entzutea eskatu dute. Horretan, liskarra sortu da. Udalburu jaunak 8:15ean bertan behera utzi du osoko bilkura, ezinezkoa baitaio bilera egitea.

8:35ean bilkurari berriro ekin dio, ateak itxita, Domingo Unanue Plazako udal-bulegoetan.



GALDE-ESKEAK.

- .- Osoko bilkurako eguneko aztergaietan mozioak sartzeko, finkatu beharreko irizpideak.
- .- EB-Berdeak/Aralar koalizioak aurkeztutako mozioari buruzko galderak.

..... 12. or.

ORDUTEGIA

**HASIERA ORDUA 18:10**

**AMAIERA ORDUA: 11:35**



Udalburuak bilerari hasiera emanda, eguneko lehen puntua irakurri da.

### 1.- 2009ko martxoaren 26ko bileraren akta onartzea.

#### Proposamena

#### **2009ko martxoaren 26an egin zen bileraren aktaren zirriborroa onartzea.**

Proposamena onartzeko beharrezkoa den gehiengoa: soila.

#### Eztabaida

Udalburuak esku-hartzeko txanda irekita, honako hauek izan dira laburbilduta: bat ere ez.

#### Bozketa

Mahaian eztabaida bukatutzat joa, eta bertaratutako herritarrei hitza hartzeko aukera emanda, udalburuak proposamena bozkatzea eskatu du.

Bozketa eginda, honako emaitza izan du:

Aldeko botoak: 10 (EAJ 4, EA 2, PSE-EE (PSOE) 2, EB-Berdeak/Aralar 2)

Aurkako botoak: 0

Abstentzia: 0

**Udalburuak, horrenbestez, aurkeztutako proposamena onartutzat jo du.**



Jarraian, udalburuak eguneko aztergaietako 2. puntuari heldu dio:

### 2.- Udalbatzak 2009ko apirilaren 29an egindako bileraren akta onartzea.

#### Proposamena

#### **2009ko apirilaren 26an egin zen bileraren aktaren zirriborroa onartzea.**

Proposamena onartzeko beharrezkoa den gehiengoa: soila.



### Eztabaida

Udalburuak esku-hartzeko txanda irekita, honako hauek izan dira laburbilduta: bat ere ez.

### Bozketa

Mahaian eztabaida bukatutzat joa, eta bertaratutako herritarrei hitza hartzeko aukera emanda, udalburuak proposamena bozkatzea eskatu du.

Bozketa eginda, honako emaitza izan du:

Aldeko botoak: 9 (EAJ 3, EA 2, PSE-EE (PSOE) 2, EB-Berdeak/Aralar 2)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioa: 1 (Santamaria jaunak abstentziora jo du bileran egon ez zelako, bidaiari baitzegoen).

**Udalburuak, horrenbestez, aurkeztutako proposamena onartutzat jo du.**



Jarraian, udalburuak eguneko aztergaietako 3. puntuari heldu dio:

### 3.- Udalbatzak 2009ko maiatzaren 6an egindako bileraren akta onartzea.

#### Proposamena

**2009ko maiatzaren 6an egin zen bileraren aktaren zirriborroa onartzea.**

Proposamena onartzeko beharrezkoa den gehiengoa: soila.

### Eztabaida

Udalburuak esku-hartzeko txanda irekita, honako hauek izan dira laburbilduta: bat ere ez.

### Bozketa

Mahaian eztabaida bukatutzat joa, eta bertaratutako herritarrei hitza hartzeko aukera emanda, udalburuak proposamena bozkatzea eskatu du.

Bozketa eginda, honako emaitza izan du:

Aldeko botoak: 6 (EAJ 3, EA 2 PSE-EE(PSOE) 1)

Aurkako botoak: 0



Abstentzioa: 4 (EAJ 1, PSE-EE (PSOE) 1, EB-Berdeak/Aralar 2)

**Udalburuak, horrenbestez, aurkeztutako proposamena onartutzat jo du.**



Jarraian, udalburuak eguneko aztergaietako 4. puntuari heldu dio:

**4.- Alkatetzak onartutako kreditu gehigarrien espedienteen berri-ematea.**

**182. DEKRETUA**

**HONAKO HAUEK KONTUAN HARTUTA**

- Enpresa esleipendunak 2009an aldizkaria argitara emateko aurkeztu duen aurrekontua 34.901,40 €koa da.
- 226.111.00.7 kontu-sailean, 2009 ekitaldirako, 35.000 €ko aurrekontuko diru-izendapena dago, "Ordizia Gaur" aldizkaria argitara emateko.
- Aldizkaria maiztasun handiagorekin argitara emateko interesa.

**ONTZAT EMATEN DUT**

\* 226.111.00.7 kontu-sailean 1.401,40 €ko kreditu gehigarria onartzea, "Ordizia Gaur" aldizkaria argitara emateko, altxortegiko soberakinaren kargura.

\* Eman bekie interesdunei dekretu honen berri.

**217. DEKRETUA**

**HONAKO HAUEK KONTUAN HARTUTA**

- Zenbait zerbitzuri (honekin batera dagoen orrian jasoak) behar bezalako arreta emateko sortu diren finantziazio-premiak.
- 2009ko Aurrekontua Gauzatzeko Oinarrien 5.ak xedatutakoaren arabera, aurrekontuaren % 5 gaindituko ez duen zenbateko metatuko kreditu gehigarriko espedienteak onartzeko alkateak duen eskumena.

**HONAKO HAU ERABAKI DUT**

- 2009ko aurrekontuan kreditu gehigarrien 3. espedientea onartzea 46.000 €ko zenbatekoan, kreditu-soberakinaren bitartez finantzatua.

Honen berri ematea osoko bilkurari lehen bileran.



## Eztabaida

Udalburuak esku-hartzeko txanda irekita, honako hauek izan dira laburbilduta:

### Alkate jauna

Kreditu gehigarriak onartzen dituzten dekretuen berri eman du, eta azaldu du zein diren kreditu horien arrazoiak eta gastuak.

### Dubreuil in.

Adierazi du Gizarte Ongizatera bideratuko den 30.000 €ko kreditu edo kontu-sail horrekin urteko lehen hiruhilekoko eskaerei egingo zaiela aurre. Neurri eta irizpide berriak onartzeko, ikusi beharko da eskaerek zein bilakaera duten urtean zehar, eta Foru Aldundiak zenbaten igoko duen kreditua.

**Udalbatza jakinaren gainean dago.**



Jarraian, udalburuak eguneko aztergaietako 5. puntuari heldu dio:

### 5.- Francisco Franco ohorezko alkate izendatzen duen akordioa baliogabetzea.

#### Proposamena

1949ko abuztuaren 17an, udal honetako udalbatzak Francisco Franco jenerala hiribildu honetako ohorezko alkate izendatzea erabaki zuen.

2009ko apirilaren 28an, EB/Aralar koalizioak 1949an hartutako erabakia baliogabetzea eskatu du; hau da, Francisco Francoren ohorezko alkate izendapena ezeztatzea.

Osoko Bilkuretarako gaiak aztertzen dituen Batzordeak 2009ko maiatzaren 20an egindako bileran onespena eman zion eskaerari; horrenbestez, osoko bilkuran horren aldeko erabakia hartu du.

#### AKORDIORAKO PROPOSAMENA

\*

Proposamena onartzeko beharrezkoa den gehiengoa: Soila.

#### Eztabaida.

Udalburuak esku-hartzeko txanda irekita, honako hauek izan dira laburbilduta: bat ere ez.



## Bozketa

Mahaian eztabaida bukatutzat joa, eta bertaratutako herritarrei hitza hartzeko aukera emanda, udalburuak proposamena bozkatzea eskatu du.

Bozketa eginda, honako emaitza izan du:

Aldeko botoak: 10 (EAJ 4, EA 2, PSE-EE(PSOE) 2, EB/ARALAR 2)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioa: 0

**Udalburuak, horrenbestez, aurkeztutako proposamena onartutzat jo du.**



Jarraian, udalburuak eguneko aztergaietako 6. puntuari heldu dio:

### 6.- 2008ko aurrekontuaren likidazioaren berri ematea.

Alkate jaunak Udalaren beraren aurrekontuaren, "San Jose Egoitza" OAAren aurrekontuaren eta "Herri Antzokia" OAAren aurrekontuaren kitapena onartuta, Gipuzkoako Toki Entitateen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 49.3 artikulua ezarrita, udalbatzari kitapen horien berri eman zaio:

	Aurrekontuaren emaitza	Altxortegiko soberakin garb.
Udalaren beraren aurrekontua	2.011.632,56	4.001.193,70
"San Jose" OAA	0	57.213,79
"Herri Antzokia" OAA	9.819,27	19.984,78

### Kontu-hartzailea

2008. ekitaldiko kitapenari buruzko azalpen laburra eman du, bai udalarena, baita honen mendeko diren erakunde autonomoena ere.

Altxortegiko soberakina 4.001.193,70.- euro da.

Esan du kreditu gehigarriak ez direla aurrekontuko ehuneko altua, nahiz eta batzuetan aurkakoa iruditu.





Eraitza positiboa da.

Zaharren Egoitzari dagokionez, udalburuak esan du eskualdeko 6 herrik erabiltzen dutela egoitza; horiek Zuzendaritza Batzordeko kideak dira, eta ez dute kuotarik ordaintzen, Aldundiaren eskumena dela argudiatuta.

Dubreuil in.

Esan du hainbat lan egin beharra dagoela egoitzan, eta horiek inbertsioen kontura egin litezkeela.

Maiza and.

Galdetu du nork ordainduko duen egoitza, baldin eta herri guztiek Aldundiaren eskumena dela argudiatzen badute.

Bere iritziz, egoitzan dauden udalherri intsumiso horietako pertsonen senideek ezagutu beharko lukete zein den egoera. Intsumisio horretan zergatik hartu behar duen Udalak zama hori.

Zerbitzuari eusteak zigorra dakarkio Udalari.

Alkate in.

Esan du gai hori etengabe aztertu dela Egoitzaren Zuzendaritza Batzordean.

Maiza and.

Herri Antzokiari dagokionez, Maiza andreak esan du badirudiela gauzak hobetzen ari direla. Neurri txikiekin zinemaren erabiltzaileen interesa piztea lortu da.

Dagoen azpiegiturarekin ezin da askoz ere gehiago egin.

Aurten hainbat inbertsio txiki egingo dira.

***Udalbatzak 2008ko kitapenaren berri jaso du.***



Jarraian, udalburuak eguneko aztergaietako 7. puntuari heldu dio:



## 7.- San Inazio eraikina jaregitea.

### Proposamena

San Inazio eraikina 1975ean eraiki zuen Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak Udalaren lurretan, Ordiziako Udalaren jabetzapekoa izateko eta Hezkuntza Zerbitzuarekin lotzeko baldintzekin.

Hala ere, aipatu eraikina ez du Hezkuntza Zerbitzuak erabiltzen, Jakintza Ikastolak baizik.

Toki-entitateen ondasunei buruzko erregelamenduaren arabera (1372/1986 Errege Dekretua, ekainaren 13koa), zerbitzu publikoarekin lotura duen ondasun bati bestelako erabilera bat eman ahal izateko, lehenik aipatu zerbitzu publikotik deslotu edo jaregin beharko litzateke.

Udalaren jabetzapekoak diren eskola-eraikin publikoak erabiltzeko araubide juridikoari buruzko 77/2008 Dekretuak xedatutakoaren arabera, irakaskuntza publikoarekin lotura duten eraikinak erabilera horretatik jaregiteko baimena Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari eskatu behar zaio.

Aipatu dekretuko 7. artikulua jaregite hori ontzat hartuko duten kasu zehatzak aipatzen ditu; horietako bat da eraikina irakaskuntza publikorako nahitaezkoa ez izatea.

Bistan da San Inazio eraikinak baldintza hori betetzen duela, azken hamarkadetan ez baita beharrezkoa izan irakaskuntza publikorako; izan ere, badira premia hori betetzen duten beste eraikin batzuk.

Otsailaren 12an aurkeztutako idazkiaren bitartez, Jakintza Ikastolak San Inazio eraikina hezkuntza-zerbitzutik jaregitea, eta ondoren emakidan utzia izan dakiola eskatu zuen.

Herri-lan eta Hirigintza Ordezkaritza 2009ko apirilaren 20an eman zuen irizpenarekin, eta Osoko Bilkuretarako gaiak aztertzen dituen Batzordeak 2009ko maiatzaren 20an eman zuen irizpenarekin, honako

AKORDIORAKO PROPOSAMENA proposatzen da:

### **1.- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari San Inazio eraikina jaregiteko baimena eskatzea.**

Proposamena onartzeko beharrezkoa den gehiengoa: soila.

### Eztabaida

Udalburuak esku-hartzeko txanda irekita, honako hauek izan dira laburbilduta:

Alkate jn.



Jaregitea zertan den azaldu du. Erabilpenaren jaregitea da; berau Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzan bideratu eta eskatu behar da.

### Bozketa

Mahaian eztabaida bukatutzat joa, eta bertaratutako herritarrei hitza hartzeko aukera emanda, udalburuak proposamena bozkatzea eskatu du.

Bozketa eginda, honako emaitza izan du:

Aldeko botoak: 10 (EAJ 4, PSE-EE(PSOE) 2, EA 2, EB/Berdeak/Aralar 2)

Aurkako botoak:0

Abstentzioa: 0

**Udalburuak, horrenbestez, aurkeztutako proposamena onartutzat jo du.**



Jarraian, udalburuak eguneko aztergaietako 8. puntuari heldu dio:

### 8.- Haur-eskola zerbitzua esleitzeko baldintza ekonomiko-administratiboen eta teknikoaren agiria onartzea.

#### Proposamena

Udal Haur Eskolako erregelamenduak udal haur-eskola arautzen du; zerbitzua gizarte- eta hezkuntza-arlokoa da, eta zeharkako kudeaketa du, emakida bitartez.

2003ko irailaz geroztik, "Alotza" haurtzaindegiko guraso-elkartea da zerbitzuaren emakidaduna. Kontratua aurtengo abuztuaren 31n amaituko da, eta, horrenbestez, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legea betez, lizitazio publikoa deitu behar da.

Administrazio-baldintzen agiria eta baldintza teknikoaren agiria onartzeko, lizitazioa deitzeko eta esleipena erabakitzeko eskumena duen kontratazio-organoa udalbatza da, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1986 Legeko 22.2 ñ) artikulua, eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legeko Bigarren Xedapen Gehigarriak xedatutakoa betez.

Hala ere, kontratazio-prozedura arintze aldera, kontratu honen behin-behineko eta behin betiko esleipena alkatearen esku uztea erabaki da, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen Legeko 22.4 artikulua horretarako bide emanda.

Osoko Bilkuretarako gaiak aztertzen dituen Batzordeak 2009ko maiatzaren 20an eman zuten irizpenarekin, honako



AKORDIORAKO PROPOSAMENA proposatzen da:

**1.- Udalaren haur-eskola zerbitzuaren kudeaketaren lizitazioa zuzentzen duten Administrazio-baldintzen agiria eta baldintza teknikoaren agiria onartzea.**

**2.- Udalaren haur-eskola zerbitzuaren kudeaketa kontratatzeko lizitaziorako deia egitea.**

**3.- Alkatearen esku uztea udalaren haur-eskola zerbitzuaren emakida-kontratuaren behin-behineko eta behin betiko esleipena.**

Proposamena onartzeko beharrezkoa den gehiengoa: soila.

#### Eztabaida

Udalburuak esku-hartzeko txanda irekita, honako hauek izan dira laburbilduta:

#### Alkate jn.

Esan duenaren arabera, baldintzen agirian jasotako aldaketarik aipagarriena da datozen 3 urteotan urtero 9 euro/hileko igoko dela erabiltzaileek ordaindu beharreko tarifa.

Dirudienez, akats bat dago: Udalaren ekarpen muga 33.500 €koa izanik, kontuek koadratuko badute, tarifak KPI+% 1+9 euro igo beharko dira (azken igoera lineal hau soilik datozen 3 urteotan).

Bere iritziz, gainera, baldintzen agirian klausula bat sar daiteke esanez 9 euroko kopuru finko hori jaitsi egingo dela Eusko Jaurlaritzak emango duen diru-laguntzak izan dezakeen aldaketaren arabera.

#### Launda jn.

Berriro ere akordioa udalbatzari nola proposatu zaion salatu du. Akordioa lantzerakoan, ez dituzte kontuan hartu. Gobernu-taldeak adostutako plegua da.

Bere taldea bat dator proposamenarekin, baina 33.500 €ko ekarpena ez da nahikoa.

Haur-eskola bi entitatek finantzatzeko dute; Udalak eta Eusko Jaurlaritzak. Udalaren ekarpenak handiagoa beharko luke izan, udalak bere gain hartzen ez duena erabiltzaileek ordaindu behar baitute.

Bere iritziz, baldintzen agiriak ez ditu bi arazo konpontzen:

1.- Laguntzak ez ditu premia guztiak asetzen, eta familia bakoitzak bere premiak ditu; beraz, prezioek ere desberdinak izan beharko lukete. Hau ez da beste lekuetan gertatzen.



2.- Plaza eskasia: ez dago plaza nahikorik. Jendea kanpo geratzen da. 2-3 urteko adin-tartean plazak soberan daude, eta 0-2 urtekoan, berriz, gurasoek beren seme-alabak beste haurtzaindegietara, Ordiziatik kanpo, Eraman behar izaten dituzte.

#### Maiza and.

Esan du gobernu-taldeak une honetan zerbitzua ematen duten langileek helarazitako eskaera baloratu duela. Berak ere, zenbaitetan, kontraesanak izan ditu. Publikoaren aldeko apustua egin da, eta hezkuntzak lehentasuna du laguntza-zerbitzuen aurretik. Eusko Jaurlaritzak agintea hartu du arlo honetan, eta hezkuntza 0 urtetik hasten da.

Aurreko legegalditan, Partzuergoan sartzea aztertu zen, baina alde batera utzi zen aukera hori.

Bere iritziz, baldintzen agiriak urteko kontratazioa (gehienez ere 6 urtera luzagarria) proposatzean, proposamenak alde batera nahiz bestera aldatuz gero erabakiak hartzeko aukera ematen du.

Administrazioak neurri handi batean eta positiboki lagundu du haurtzaindegia bizi izan dituen desoreka-egoeretan.

Laguntzari eta erabilpenaren arabera ordaintzeari dagokienez, Maiza andrea bat dator.

Esan du bere garaian Alotza haurtzaindegia Lazkaoko haurtzaindegiaren ereduaren aurkako idatzia eman zuela argitara; Lazkaoko haur-eskola parkinga dela zioen idazkiak.

Plaza eskasiaren arazoa sortzen da haurtzaindegian urte 1ekin hasi nahi izaten denean, haur gehienak 0 urterekin hasten baitira; beraz, hurrengo urterako kopurua itxita geratzen da.

#### Launda in.

Esan du badakiela onartzeko aurkeztu den baldintza agiria langileen eskaerei erantzuten diela.

Partzuergoak langileei bitartekotasun bakarra eskaintzen die. Hainbeste urte daramatenei horrek beldurra ematen die. Proposatutakoarekin bat datoz, betiere eredia iraunkorra baldin bada. Alabaina, berriro ere esan du udalak jarriko duen kopurua gutxi dela. Erabiltzaileen tarifek 3 urtez % 24ko igoera izango dute.

Eusko Jaurlaritzarekin sinatutako hitzarmenak xedatutakoaren arabera, eusko Jaurlaritzak udal-zerbitzu hori ematen lagunduko du. Alabaina, 2002an hainbat irizpide ezarri ziren, gaur egun betetzen ari ez direnak. Esate baterako, irizpide horien arabera, erabiltzaileek ez lukete % 30 baino gehiago jarri beharko; hala ere, une honetan % 34 ari dira ordaintzen, eta 3 urtetan ehuneko hori askoz ere altuagoa izango da.



Ordutegiak ematen dituen aukerei dagokienez, bere iritziz, Maiza andreak dioenaren aurka, udalak esku hartu beharko luke arazo horretan.

#### Alkate jn.

Plaza eskasiari dagokionez, alkate jaunak esan du une honetan 7 haur geratuko direla 1-2 adin-tarte horretatik kanpo.

#### Launda jn.

Nire iritziz, plaza gehiago sortu beharko lirateke. Udalak zerbitzua bermatu beharra dauka, eta, horrenbestez, adin-tarte guztietarako plaza-kopurua.

Bere iritziz tarifak altuegiak dira.

#### Alkate jn.

Baldintza agiriaren puntu on gisa inbertsioena aipatu du, eta gurasoek ordaindu beharreko defizita modu mailakatuan proposatu dela esan du.

#### Dubreuil jn.

Bere iritziz, Eusko Jaurlaritzak gero eta ekarpen handiagoa egingo du, eta, beraz, defizitaren kontu hau poliki-poliki joango da konpontzen.

Bera ere ez dago ados udalak jarriko duen kopuruarekin, eta zerbitzuaren erabiltzaileek karga handiagoa izatearekin. Udal-zerbitzua da.

Berriro ere adierazi du karga handiena administrazioek hartu behar dutela beren gain, ez gurasoek.

#### Asenjo. Jn.

Bere iritziz haurtzaindegiarekin hitz egindako errespetatu beharko litzateke.

Proposamena onartu egin da, honako aldaketekin:

- 3c klausula:

Paragrafo hau aldatu egin da:

Udalak emakidadunari eman beharreko ordaina, oreka ekonomiko eta finantzarioa lortze aldera, urteko gehienez ere 33.500 euro izango da. Halaber, udalak kontratuaren lehen hiru urtetan sor daitekeen defizita finantzatuko du; betiere, 3 urteko epe horretako urte bakoitzean tarifak 9 euro igotzen baditu.



Beste honengatik:

Zerbitzuak azken ekitaldiotan izan duen defizita murrizte aldera, udalak, 2009-2010 ikasturterako, tarifak 9 euro igotzea aurreikusi du.

- 7. klausula, lehen paragrafoa.

Paragrafo hau aldatu egin da:

3, c) klausulan azaldutakoaren arabera, kontratuaren lehen hiru urteetan, eta, betiere, 3 urteko epe horretako urte bakoitzean tarifak 9 euro igotzeko baldintza betetzen bada, udalak bere gain hartuko du sor daitekeen defizita.

Beste honengatik:

3, c) klausulan azaldutakoaren arabera, kontratuaren lehen urtean, eta, betiere, tarifak 9 euro igotzeko baldintza betetzen bada, udalak bere gain hartuko du sor daitekeen defizita.

### Bozketa

Mahaian eztabaida bukatutzat joa, eta bertaratutako herritarrei hitza hartzeko aukera emanda, udalburuak proposamena, aipatu aldaketarekin, bozkatzea eskatu du.

Bozketa eginda, honako emaitza izan du:

Aldeko botoak: 7 (EAJ 3, PSE-EE (PSOE) 2, EA 2)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioa: 2 (EB-Berdeak/Aralar)

**Udalburuak, horrenbestez, proposamena onartutzat jo du.**



Jarraian, udalburuak eguneko aztergaietako 9. puntuari heldu dio:

### 9.- Etxe etxeko laguntza-zerbitzua esleitzea

#### Proposamena

Etxez etxeko laguntza-programa lehiaketa irekiaren eta izapide arruntaren bidez kontratatzeko bideratu den espedientearen berri eman da. Deia udalbatzak onartu zuen 2009ko otsailaren 5ean, 314.617,57 euroko (gehi % 7ko BEZ) aurrekontuarekin.



- Pleguen irekiera-akta 2009ko martxoaren 30ean egin zen, eta honako proposamen hauek onartu ziren:

GOXARA, SL  
EULEN Servicios Sociosanitarios, SA  
KONFIA Servicios de Conciliación, SL  
BIZITZEN Fundazioa  
ARQUITEMPO Servicios

- Kontratazio-mahaiak 2009ko martxoaren 30ean egin zuen bileraren aktan, aditu-taldeak, aurkeztu ziren proposamenen balorazio-txostena aztertuta, *ARQUITEMPO Servicios* enpresari esleitzearen aldeko proposamena egin zuen; oro har, berea baita proposamenik onuragarriena.

Hori guztia kontuan hartuta, Osoko Bilkuretarako gaiak aztertzen dituen Batzordeak erabaki du

Honako AKORDIORAKO PROPOSAMENA proposatzea:

**1.- Behin-behinekoz, *ARQUITEMPO Servicios* enpresari esleitzea Etxez etxeko laguntza-programaren kontratua. Arreta-orduaren prezioa 16,59 euro (gehi % 7ko BEZ) izango da.**

**2.- Behin betiko esleipenerako, esleipendunak ondoren aipatzen direnak egin beharko ditu esleipenaren berri jaso eta hamabost egun balioduneko epearen barruan:**

- a) Zerga-betebeharrak nahiz Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak beteta dituela justifikatzeko agiriak aurkeztea, non eta ez dituen lehendik aurkeztu, proposamenarekin batera. Gainera, kontratua burutzeko bitartekorik jarriko duela adierazi badu, bitarteko horiek badituela adierazten duten agiriak ere aurkeztu beharko ditu.
- b) 15.730,88 euroko behin betiko bermea jarri.

**3.- Behin betiko esleipenerako, etxez etxeko laguntza-programaren kontratazio-organoari, hau da udalbatzari dagozkion eskuduntzak alkatearen esku uztea.**

Proposamena onartzeko beharrezkoa den gehiengoa: soila.

Eztabaida

Udalburuak esku-hartzeko txanda irekita, honako hauek izan dira laburbilduta:





Dubreuil in.

Esleipenerako izendatu zen mahai teknikoak hautagaiek aurkeztutako eskaintzen balorazio-txostenaren, eta kontratazio-mahaiak ARQUITEMPO enpresaren aldeko egindako proposamenaren berri eman du.

Baldintza-agirian ezarritako haztapen-irizpideetan enpresek lortutako puntuazioen berri eman du.

Launda in.

Ez du ulertzen nola litekeen Foru Aldundiak ordua 17,63 €an (BEZ barne) baloratzea, eta udalak 16,59 €an (+ % 7ko BEZ) esleitzea.

Dubreuil in.

Horren berri eman dio.

Launda in.

9. klausulan, erabiltzaileek zerbitzua bi hizkuntza ofizialetan jasotzeko eskubidea ezartzen da. Baldintza-agirian hizkuntza ezagutu beharra jasotzen ez bada, nekez gauzatu ahal izango du erabiltzaileak eskubide hori.

Halaber, adierazi du enpresak jasotzen duen industri mozkina oso altua dela; izan ere, ordua 16,59 €an (+ % 7ko BEZ) kobratzen badu, eta langileari 10 € baino ordaintzen ez badio, enpresak bere poltsikora daraman aldea handia da.

Dubreuil in.

Esandako zuzendu dio. Alde hori ez da irabazi garbia enpresarentzat, beste hainbat enpresa-gasturi egin behar baitio aurre.

Launda in.

Esan du zerbitzuaren erregelamenduak ez duela langileen lan-baldintzei buruzko aipamenik egiten.

Dubreuil in.

Erantzun dio zenbait kontu baldintzen agirian araututa daudela, eta esleipenean baloratu direla, baloratu ere.

Launda in.



Bere iritziz, zerbitzuak finkatuta, administrazio eskudunak bere gain hartu beharko lituzke langileak, eta, horrela, enpresa bitartekarien irabazi-asmoa saihestu. Enpresa horiek, gainera, langileak entxufez kontratatzen dituzte, inolako merituri erreparatu gabe.

### Bozketa

Mahaian eztabaida bukatutzat joa, eta bertaratutako herritarrei hitza hartzeko aukera emanda, udalburuak proposamena bozkatzea eskatu du.

Bozketa eginda, honako emaitza izan du:

Aldeko botoak: 6 (EAJ 2, PSE-EE (PSOE) 2, EA 2)

Aurkako botoak: 2 (EB-Berdeak/Aralar)

Abstentzioa: 0

**Udalburuak, horrenbestez, proposamena onartutzat jo du.**



Jarraian, udalburuak eguneko aztergaietako 10. puntuari heldu dio:

### 10- Goierriko Herrien Ekintzako eraikineko lanen EIOZen hobaria.

#### Proposamena

Eraikuntzen, Obren eta Instalazioen gaineko Zerga arautzen duen Ordenantza Fiskalaren berri eman da. Aipatu ordenantzak zergaren % 95erainoko hobaria aurreikusten du interes berezia edo udal-onura aitortzen zaien lan, eraikuntza edo instalazioetan. Halakorik aitortzeko, inguruabar sozial, kultural, historiko-artistiko, edo enplegua sustatzekoak gertatu behar dira.

Halaber, Goierriko Herrien Ekintza eraikin nagusia eraikitzeko lanetarako aipatu zergaren hobari-eskaeraren berri eman da.

Osoko Bilkuretarako gaiak aztertzen dituen Batzordeak 2009ko maiatzaren 20an egindako bileran, eskatutako hobariaren aldeko irizpena eman zuen, eraikin berriari nagusiki emango zaion hezkuntza- eta prestakuntza-erabilera kontuan hartuta.

AKORDIORAKO PROPOSAMENA

**Egin beharreko lanei interes berezia edo udal-onura aitortzea, eta, ondorioz, Eraikuntzen, Obren eta Instalazioen gaineko Zerga % 75eko hobaria onartzea.**



Proposamena onartzeko beharrezkoa den gehiengoa: soila.

### Eztabaida

Udalburuak esku-hartzeko txanda irekita, honako hauek izan dira laburbilduta: bat ere ez.

### Bozketa

Mahaian eztabaida bukatutzat joa, eta bertaratutako herritarrei hitza hartzeko aukera emanda, udalburuak proposamena bozkatzea eskatu du.

Bozketa eginda, honako emaitza izan du:

Aldeko botoak: 8 (EAJ 2, PSE-EE(PSOE) 2, EA 2, EB/Berdeak/Aralar 2)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioa: 0

**Udalburuak, horrenbestez, proposamena onartutzat jo du.**



Jarraian, udalburuak eguneko aztergaietako 11. puntuari heldu dio:

11.- HEE (Hirigintza Esku-hartzeko Eremua) 30 "OIANQUALDE" hitzarmena onartzea.

### Proposamena

"30-Oiangualde" Hirigintza Esku-hartzeko Eremuaren Plan partziala 2008ko irailaren 18an behin betikoz onartu zela jakinarazi da.

Halaber, 2009ko martxoaren 5ean, aipatu sektorea birpartzelatzeko eta urbanizatzeko proiektuak onartu ziren behin-behinekoz.

"30-Oiangualde" HEEk "26-La Granja" HEE du mugakide. Horren zati bat Munduate familiaren jabetzakoa da; kontuan hartuta lehenaren garapenak eragin negatiboa izan dezakeela Munduate familiaren interesetan (eta halaxe ikusten dute), zehazki La Granja eraikinean, sektorea garatze aldera, *Promotora del Goyerri, SA* enpresaren, Udalaren eta Munduate familiaren artean hitzarmena onartzea proposatzen da. Hitzarmenak sinatzaile bakoitzak bete beharreko konpromisoak jasoko ditu.



Lurzoru eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeko zazpigarren xedapen gehigarriak xedatutakoaren arabera, Udalari dagokio hirigintza-hitzarmenak onartzea, jendaurreko informazio epea gutxienez 20 egunekoa izanik.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 22.2.c) artikulua arabera, udalbatzari dagokio aipatu hitzarmena onartzea.

Osoko Bilkuretarako gaiak aztertzen dituen Batzordeak 2009ko maiatzaren 20an eman zuen oniritziarekin, honako

AKORDIORAKO PROPOSAMENA proposatzen da

**1.- "30-Oianguren" Hirigintza Esku-hartzeko Eremua garatzeko, Udalak, Promotora del Goyerri, SAK eta Munduate familiak sinatu beharreko hitzarmena onartzea.**

**2.- Aipatu hitzarmena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean jendaurrean jartzea 20 egunetarako; epe horretan alegaziorik aurkeztu ezean, behin betikoz onartutzat joko da.**

**3.- Alkatea gaitzea beharrezkoak diren dokumentuak sina ditzan.**

Proposamena onartzeko beharrezkoa den gehiengoa: soila.

Alkate jn.

Sektorearen garapena eta kudeaketa errazteko hitzarmena dela azaldu du. Udalak proposatutako hitzarmena ez da adostu Munduate familiarekin; oraindik badira hainbat klausula eztabaidagai.

Alkateak puntu hau hurrengo osoko bilkurarako uztea proposatu du.

Galparsoro and.

Esan du Munduate familiak alegazioak aurkeztu dizkietela Plan Partzialari, eta horiek ez direla aintzat hartu. Orain, arazoak konpontze aldera, hitzarmena sinatzea proposatzen da.

Alkateak prozesua nola izan den azaldu dio.

Bozketa eginda, honako emaitza izan du:

Aldeko botoak: 6 (EAJ 2, PSE-EE (PSOE) 2, EA 2)

Aurkako botoak: (2 EB-Berdeak/Aralar). Botoa justifikatu dute esanda ez dutela gaiari buruzko informaziorik izan.

Abstentzioa: 0

**Horrenbestez, gaia erabaki gabe geratu da.**



Alkate jn.

Esan die ez dutela informaziorik jaso Osoko Bilkuretarako gaiak aztertzen dituen Batzordera joan ez zirelako.



Jarraian, udalburuak eguneko aztergaietako 12. puntuari heldu dio:

### 12.- Sustapen Ministerioarekin hitzarmena, % 1 kulturala finantzatzeko.

#### Proposamena

Sustapen Ministerioaren ebazpenaren berri eman da. Ebazpenaren bitartez udalari jakinarazi zaio Batzorde Mistoak 2009ko apirilaren 30ean % 1 kulturalari buruz hartu duen erabakia "Ordiziako Udaletxea zaharberritzeko eta birgaitzeko lanak" finantzatzeko: zenbatekoa 731.902,82 euro da, 2009an ordaindu beharrekoa. Kopuru hori aurkeztutako gauzatze-proiektuaren zenbatekoaren % 29,28 da.

Finantziazio horretarako, lankidetzeta-hitzarmena sinatu beharra dute Sustapen Ministerioak eta Ordiziako Udalak, lankidetzeta horren baldintzak zuzenduko dituen hitzarmena hain zuzen ere.

Horregatik, honako

AKORDIORAKO PROPOSAMENA proposatzea erabaki da

**\* Ordiziako Udaletxea zaharberritzeko eta birgaitzeko lanak finantzatzeko, Udalak eta Sustapen Ministerioak sinatu beharreko lankidetzeta-hitzarmena onartzea.**

**\* Alkatea jn. gaitzea beharrezkoak diren dokumentuak sina ditzan.**

Proposamena onartzeko beharrezkoa den gehiengoa: soila.

Alkate jn.

Jakinarazi duenez, atzo bertan (maiatzaren 27a), eta osoko bilkurarako deia bidali ondoren, iritsi zen udaletxea birgaitzeko lanetarako % 1 kulturala finantzatzeko Sustapen Ministerioarekin sinatu beharreko hitzarmen proposamena.

Hori dela-eta, gai-zerrendan sartzea proposatu du.

Puntua gai-zerrendan sartzearen inguruko bozketa



Bozketa eginda, honako emaitza izan du:

Aldeko botoak: 6 (EAJ 2, PSE-EE (PSOE) 2, EA 2)

Aurkako botoak: (1 EB-Berdeak/Aralar).

Abstentzioak: 0

**Horrenbestez, puntua gai-zerrendan sartu da.**

#### Eztabaida

Udalburuak esku-hartzeko txanda irekita, honako hauek izan dira laburbilduta: bat ere ez.

Bozketa eginda, honako emaitza izan du:

Aldeko botoak: 6 (EAJ 2, PSE-EE (PSOE) 2, EA 2)

Aurkako botoak: (1 EB-Berdeak/Aralar).

Abstentzioak: 0

**Udalburuak, horrenbestez, proposamena onartutzat jo du.**



Jarraian, udalburuak eguneko aztergaietako 13. puntuari heldu dio:

**13.- "Oiangu Bizirik" taldeak Oianguri parkeari buruz aurkeztutako mozioa.**

Alkate jn.

"Oiangu Bizirik" taldeko Edurne Huesak Oianguko zelaiari buruz aurkeztu duen proposamenaren berri eman du.

Puntua gai-zerrendan sartzearen inguruko bozketa egin da.

#### Puntua gai-zerrendan sartzearen inguruko bozketa

Bozketa eginda, honako emaitza izan du:

Aldeko botoak: 6 (EAJ 2, PSE-EE (PSOE) 1, EA 2, EB-Berdeak/Aralar 1)



Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 0

Dubreuil jaunak (PSE-EE/PSOE) ez du botoa eman familia-interesak dituelako gai honetan.

Jarraian, osoko bilkurak eztabaida hurrengo osoko bilkurara atzeratzea erabaki du, osoko bilkura ateak itxita egiten ari delako, eta "Oiangu Bizirik" taldeko kide Edurne Huesa bertan ez dagoelako.



Jarraian, udalburuak eguneko aztergaietako 14. puntuari heldu dio:

#### 14.- Galde-eskeak

Asenjo jaunaren iritziz, irizpide argiak finkatu beharko lirateke, juridikoez edo legezkoetz gain, osoko bilkuran mozioak sartu ahal izateko, honek eztabaida ditzan.

Alkate jaunak erantzun dio hasiera batean behintzat mozio politikoak ez direla sartzen.



Leunda jaunak galdetu du zertan den bere koalizioak ohiko osoko bilkurak egiteko ordutegia aldatzeari buruz aurkeztu zuen mozioa.

Bere iritziz, ez da errespetatzen Udalaren Erregelamendu Organikoko irizpidea; hau da, osoko bilkurak egitea ahalik eta parte-hartze handien izango den orduan, eta, horrenbestez, bere iritziz ordutegi hori aldatu egin beharko litzateke.

Erantzuna idatziz nahi du, eta adierazi du ordutegia aldatu ezean, erabakiaren aurka egingo duela.



Eta aztergai gehiagorik ez dagoela, alkate jaunak bilkura amitutzat jo du. Behin-behineko idazkari naizen honek bilkuraren Akta jaso, eta horren egiaztapena egiten dut.